

DOLMENAK

Leizetatik urten-barriak ziran gizaki euskaldun areik, laster asi ziran euren bizi-modua eratzen.

Itaun bi egin ebezan asieran: 1) Zergaitik ez, beti eizan ibilli bagerik, pizti orreik geure etxean edo lurretan geure esku euki eta ugaritu? Orra or asmatuta artzaintza edo lenengo iraulketea nagusia gure edestian. 2) Zergaitik ez, janariak batzen basorik baso ibilli bagerik, etxe-inguruan janari orreik emoten dabezan landarak erein edo sartu? Asmauta dago neka-zarritza, gizakien edestian izan zan bigarren iraulketea.

Artzaiñen aldia izan zan ba, urrenkoa, K.a. 3 000 eta 2 000 urteen bitartean. Abraham'en eta Jakob'en aldia izango zan Biblian.

Artzain oneik, gaiñera, gaur be ikusi daikeguzan gomutakiak itzi euskuezan. Ikusi dagigun zeintzuk.



Dolmenak dira lenengoak: Iru arri aundi alboetan eta atzean eta beste arri aundi bat gaiñean. Zertarako? Dirudia-nez, euren illak obiratzeko. Ori izango zan Abraham'ek Magpela'n kanaandarra lurra erosita egin eban ollobia.

Menhir'ak: Lurrean sartuta gaiñerantz zorroztak diran arri aundiak.

Jabetasuna agertzeko ete ziran?

Eta kromleix'ak, olako arriak urreratu eta obo bat sortzen dabela batzen diranean.

Au neolitiko edo arri-barri aroa da.

Giro orretan jarraitu eben metalen sasoiara arte edo Biblian Salomon'en aldira arte.

OLAZAR'tar Martin'ek

AMPURIAS

Inguruetan izan ziran erriakaz artu-emonak izan genduzan euskaldunok, baiña sarritan ez da izaten gauza erreza artu-emon orrekin albisteak batzea. An, or, emen billatu bear izaten da.

Kartagotarrakaz izan genduzan joan-etorri batzuk eta ez dira aitzu-bearrekoak.

Anibal'ek erromatarren aurka guda egiteko Auñamendi-gaiñetik bere elefanteakaz joan-bearra izan ebanean,



Anibal Auñamendi-gaiñek erromara, 40 elefante gaz.

Italia'tik Asdrubal bere anaiari laguntza eskatu eutson eta onek gudariak batu bear izan ebazan. Euren artean euskaldunak be izan ei ziran.

Ba-bakigu Kartago'tarrak indartsu egozana Erdi-Ugarte, ari eta Eszipion gudalburu erromatar azpiratuak izan arte, arik eta "delenda est Cartago" esaldia betetu zan arte.

Erdi-Ugarte onen barruan ori ospetsu bat egoan, antxiñakoa eta entzute aundikoa, gaurko Bartzelona'tik urrean eta Anpurias zan uri onen izena. Orduan toki aretan euskera egiten zan berba eta Anpurias izenak be ba-dauka euskal usaiña.

Estrabon eta Tito Libio edestilariak be aitatzen dabe uri au eta K.a. 600n. urtean sortua dala diño. Marseille baiño gerotxuago. Bearrezkoa zan uri ori iparrerantz gaurko Galia'gaz eta egoalderantz gaurko Sirakusa'gaz salerosketa zeregiñak beteteko.

Anpurias bertan bizi ziran erritarren gaiñean eregia dala diño eta orreik bai, ziur, euskaldunak ziran. Bizkai'ko Itxasotik Lurrarte itxasora bitartean, Auñamendi-inguruan, guztiak ziran lez.

Anpurias uri au uri dirutsua, itxas-lanetan trebea eta oso arroa zala diño edestizaleak.



Anpurias'eko kore K.aiko VI gizaldikoa.

OLAZAR'tar Martin'ek